

ASTEKARIA - 2009ko urtarrilaren 9an - XIII. urtea - Usurbil, 350. zenbakia

Noaia!!!

www.noaia.com



Ederra izan zen gabonetako eskubaloia festa

Larunbat honetan antzezlanaren Suteğin


36ko gerraren "Garraxi Ixilak"





www.noqua.com
MMM UOODDIA COUW



usurbildarren zerbitzura 

ERRAUSKETARIK EZ
LUPRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Ba al dakizu zer den benetan errausketa?

"Hiri hondakinak kudeatzeko osagarria den prozesu industrial bat da, non berrerabili, birziklatu eta konposta **EZIN** diren zaborren errausketaren bidez indar elektrikoa ekoizten den. Prozesu honek hondakin zaborteak ezabatzen ditu eta gainera ez du osasunean ez eta ingurugiroan eraginik sortzen."

Osasun-tekniko batzordea



ARTZABAL BASERRIA

Artzabal

Eguneroko menua 9€

Ostegunetik Igandera menu bereziak

Pintxoak: hotzak eta beroak

Kaxuelitak...

Albisteak iruditan !!

Herriko presoek arte lanak ikusgai egon dira

Paisaia ikusgarriak islatzen dituzten margolanak, eskulturak... Lan horiek guztiak eta gehiago ikusgai egon dira eguberri hauetan zehar Barrenkaleko erakusketa aretoan. Egileak sortzez gertukoak baina egun herritik urrun dauden herriko presoak ditugu.

Urtarrilaren 3ra arte, dauden lekutik egindako arte lanak bildu eta jendaurrean erakusgai jarri ditu "Usurbilen nahi ditugu" elkarteak.

Eguberrietan ere presoak gogoan izateko hainbat ekintza burutu dira; gabonetako kantekin antolatutako kalejira, gudari hilen omeneko ekitaldia edota pasa den larunbatean Bilbon burutu zen nazio mailako manifestaldia.



BARRENKALEN IKUSGAI EGON DIRA HERRIKO PRESOK EGINDAKO LANAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluz, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AZKEN UDALBATZA PLENOA	6. OR.
EUSKARAREN ERABILERA PLANA	7. OR.
PLATAFORMAREN ADIERAZPENAK	10. OR.
ESKUBALOI FESTA EDERRA	12. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean

**FERNANDO
PINTURAK**

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

ZUBIALURRENEA 4 · USURBIL

ileapaindegi mistoa

943361951

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okimlegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



IMANOL UBEDA

Han posible bada, hemen zergatik ez

Kontu zaharrekin hasiko dugu urte berria. Badator denbora luzez iragarritakoa. Eta ezer baino lehen, hitz joko aspergarrietan erori aurretik, nire idatziaren mamia laburbilduko dizuet: atez atekoaren arrakasta denon lanaren emaitza izango da. Izango dira oztopoak bidean; izango da egin den proposamenaren hobetzekorik. Baina arazoetan ainguratuta geratu ordez, konponbideetan erreparatu beharko litzateke.

Euskal Herrian aitzindari izateari ere garrantzia eman zaio, hori ere nabarmendu da hainbatetan. Zer esango dizuet ba, gutxienekoa dela esango nuke nik. Are gehiago, ez nioke garrantziarik ere emango. Ez litzateke aipagarria izan behar. Baina hemen eta orain, atez atekoa errauste-plantari aurre egingo dion alternatibaren bilakatu da. Beraz, gustatu ala ez gustatu, horrek ere badu bere garrantzia. Ez du izango ba.

Kontuak kontu, badira oraindik errauste-plantaren arriskua gutxitzea datozen ahotsak. Baina tontoenak ere ikusten du begibistakoa dena: inork ez duela aldamenen nahi. Badira ere, "eskerrak gure herrian tokatu ez den" diotenak, lasaitasun ederra hartu dutenak. Kasu horretan ez dakit zer den larriagoa. Dena den, ez gara etika-moral eskolak ematen hasiko, ezta? Ez garela-ko egokienak, hasteko.

Baitez, akaso arrazoi izango dute, mamua ez dela hain itsusia izango. Nik ere nahi nituzke horrelako segurtasunak eduki. Baina memoria pixka bat egin dezagun. Atzera jo dezagun une batez eta errauste-plantaren kokagunea erabakitzeko erabili den prozeduran erreparatu dezagun. Hasieran, Urnieta zen herri denetan, egokien artean egokiena. Baina urnietarrak kalera ateraz ziren. Instituzioak, beldurrez, ados, azterketa berriak egingo zituztela. Eta Aritzetan jarri zuten begipuntua. Hori zela kokagunerik egokiena esan zitzaigun. Zabor gehien eragiten zuen hiri-

tik gertu zegoela, gainera. Eta ondo komunikatuta. Baina azterketa haiek denak azkar urtu ziren, elurra udaberrian bezala, eta Aritzetako aukera ere, azkar asko ahaztuarazi ziguten.

Beste zortzi kokagune aztertu zituzten. Bidean, dirutza utzi zen hango eta hemengo balizko kokaguneak aztertzen. Ingurugiroaren izenean, noski. Azkenean, Zubietan bukatzeko. Kokagune guztien usteko egokitasuna bezala, prozesu osoaren sinesgarritasuna ere bidean geratu zen. Nahita ere, okerrago ezin egin.

Gauzak horrela, bertsio ofizialik sinesten ez duen artaldean jarraitzen dut. Nik ere nahiko nuke "normala" izan. Eskerrak, ordea, tarteka gurekin ere kezkatzen diren eta, gure iritzia aldatu nahian, dirutzak utziko dituzte beste behin ere promozio kanpaina berrietan. Guk ere bertsio ofizialean fedea izan dezagun. Eufemismoen bitartez, errauste-planta defendatu eta ingurugiroa zaindu nahi duten instituzioetan sinesten jarrai dezagun. Denek ditxosozko planta ahalik eta urrutien nahi dutenean.

Atez atekoari berriro helduz, ordea, kontuz ibili behar da gero. Izan ere, ez dut uste Asterix eta Obelixen komikietan nola, usurbildarrak azken galiarren pare jarri behar direnik. Badira nahikoa zama eguneroko bizitzan. Baina gauza bat esango dizuet: oztopoak oztopo, atez atekoa ondo bideratzen bada, leziorik emateko aukera ederra izango da. Txikitasantetik, umiltasantetik, auzolanari helduz. Eta ez da merkealdietako lore bat hau. Katalanek egina dute bidea. Obamaren "yes we can" hura bere egin zuten aspaldi hainbat herritan, eta lortu zuten atez atekoa sustraitzea. Datuak hor daude. Han posible bada, hemen zergatik ez.

Hasieran aipatutakoa gogora ekarri bukatu nahi dut. Berriz esango dut, beraz. Kolore, sinismen, ildo, aukera... guztien gainetik, atez atekoa ondo finkatzea denon lanaren emaitza izango da.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Festa batzuk antolatzeke, aurrerapauso asko eman behar dira, gauzak ondo aterata daitezten.

Denboraldia hastear zegoen. Jokalari gutxi zirela eta, talderik sortuko ote zen nengoen. Aurten ere inurri talde txikia izan arren, zer nolako lana egin beharko zen banekien eta horregatik lanean jardun genuen.

Eskubaloiaz gain, beste kirol batean ari ziren hiruzpalau lagunei, gurekin parte hartzea proposatu genien eta borondate osoz, baiezkoa eman ziguten. Laguntza ederra izan da! Honekin batera, infantil mailakoak ere,

"Hi, ja-iak!"

astero binaka gurekin jolastu zezaketen; maila aldaketak, zenbait gaztetxoei urduritasuna eta egonezina sortzen zien. Dena den, haien ekarpena partidetan islatu da. Bakoitzari bere mailan sendotzen lagundu dio.

Zerbait aipagarriena izan da bada talde honetan, zera da, proportzioan hezitzaileak jokalariek baino gehiago ginela! Bost! Posible ote! Eta denon artean, jokalariek barne, kristoren "giroa"! Helburua, girotzea eta ondo pasatzea baino gehiago lortu dugu!

Baina bihotz-bihotzez norbaitek zoriontzea merezi badu, Usurbil K.E-ko kadete

mutilak dira eta hauekin batera, aipatutako guztiak, abenduaren 13an Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu baitzuten!

Orain jarraian, urtarrilaren 10ean etxean, oso ondo irabazitako "Euskadiko Txapelketa" jokatzen hasiko gara. Ea bertako lehietan zein kanpokoetan, denon artean giro ederra sortzen dugun! Jarraitzaileentzat Gasteizera eta Bizkaira joan ahal izateko, autobusa izango da. Kadete mutilok, ederra antolatu dugun festa! Hau bai, "hi, ja-aiak!"

Jota *

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urtarrilak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 12.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekarria)

36ko gerrak utzitako “Garraxi Ixilak”

Landaberri antzerki taldearen lana, larunbat honetan Sutegin

36ko gerra, baina galtzaileen ikuspegitik kontatua. Historiaren bertsio ofizialetik at geratu diren drama pertsonal ikaragarriak. Garai hartako andoaindarrenak, baina beste etxe askotan bizi izandakoak. Guztiak Sutegiko oholtza gainean Landaberri antzerki eskolako eskutik, “Garraxi Ixilak” antzezlanean. Larunbat honetan, urtarrilak 10, 20:00etatik aurrera.

Oroituz taldeko Xabier Lasa andoaindarrak idatzitako “Ahozko historia: Oroimenean lokartutako ahotsa” liburuan oinarritzen da Lasarte-Oriako Landaberri antzerki eskolakoek eskainiko duten antzezlan. Gerra Zibilari ez, aktoreetako batek, Mailu Arrutik aipatu moduan, 1936ko Gerra “militarra”ri buruzkoa.

Andoainen estreinatu zuten antzezlan. Oso une hunkigarriak bizi izan zituzten. “Kontatzen genuen istorioko protagonistak aretoan bertan ziren. Oso gogorra izan zen, baina oso polita”, oroitzen du Arrutik. Barrenak berriz astintzen dituen saioa dela iragartzen du aktoreak, hainbat andoaindarren lekukotzetan oinarritua egon arren, beste etxe askotan garai hartan ohikoak ziren istorioen bilduma.

Bi fusilatu andoaindarrek hil aurretik idatzitako gutunak irakurriko dira. Bertako bi emakume udaletxera laguntza eskatzera joandako pasarteak ere gogoraziko dituzte. “Zer gertatu zen jakin behar da, berriro errepika ez dadin”,



ANTZERKI SAIDA 20:00ETAN HASIKO DA. SARRERAK JADA SALGAI DAUDE KIROLDEGIAN. EGUNEAN BERTAN, SUTEGIN IZANGO DIRA SALGAI.

gogorarazten du Arrutik. Alde horretatik, urte haietako belaunaldiarekin ustez duten zorra kitatu nahi dute antzezlanarekin. Bertsio ofizialean aipatzen ez diren, eta urte luzez isilik eta beldurpean bizi izandako hainbat biktimen ahotsa entzungo da Sutegiko oholtza gainean. Lehen pertsona bizi izandako egoera dramatikoak, askotan gertuko senitatekoak ere ezagutzen ez dituztenak.

Gizarte mailan azaleratzen eta indar hartzen doan gaia izanik, bide horretan, antzezlan hau ekarpentzat jo badaiteke, aurrerapauso hori eman izanarekin oso gustura sentitzen dira Joserra Fachadok zuzendutako Landaberri antzerki eskolakoak. “Plazer bat izan da. Geuk ere negar mordoa egin dugu”, adierazi du.

Antzezlan ikustera joateko gonbita

luzatua dute aktoreek. Bereziki gazteei, azalduko dituzten hainbat kontu entzunik ere ez dituztelako izango.

Sarrerak eskuragarri

Larunbat honetan, urtarrilak 10, 20:00etan hasiko da antzezlan Sutegin. Sarrerak salgai daude jada. Aldez aurretik 3 eurotan Kiroldegian. Egunean bertan, 5 eurotan.

Hitzaldia Artzabalen

Ostegun honetan, hilak 8, “Oroituz, Andoainen” taldeko Xabier Lasak eta Gotzon Garmendiak biktimen inguruan azken urteetan egindako lanaren berri emango dute hitzaldi baten bidez. Artzabalgo zaharren egoitzan, 19:00etatik aurrera. Antolatzailea, Udala.

Ipuin ikastaroa antolatu da Udarregi ikastolan

Umearen hasierako bizimoduan familia du bere mundu osoa. Hortik jasoko duen hizkuntza izango du lehen hizkuntza, bere mundu afektiborako hizkuntza. Horretan eragin nahi du Buruntzaldeko udalek martxan jarri duten ekimen honek, HH 5eko gurasoei zuzenduta dagoen ipuin ikastaroak.

Euskararen familia bidezko transmisioaren garrantziaz jabetuta, Usurbilgo Udalak Buruntzaldeko udalekin elkarlanean eta HABE eta HPSrekin lankidetzan, 2008/2009 ikasturtean familia bidezko transmisioa indartzeko plana laugarren ikasturtez jarri du abian. Plan horren baitan, euskarazko ipuinak kontatzen eta sortzen trebatzeko ikastaro

laburra egingo da Udarregi ikastolan.

HH 5eko gurasoei zuzendua

Nori zuzendua: HH5eko gurasoei.
Noiz: urtarrilaren 21, 22 eta 23an.
Ordutegia: 14:30-16:30.
Tokia: Udarregi Ikastola (Agerialden).
Izena emateko epea: urtarrilaren 15a (tutoreari eman izen-emate orria).

Txaramunton egin diren alokairuko etxebizitzak esleitzeko baldintzak behin betikoz onartuak izan dira

Udal jabetzako 12 etxebizitza kokatuko dira Txaramunton. Abenduaren 30eko osoko ohiko bilkuran esleipen baldintzak aho batez onartu ziren. Udalbatzak azken erabaki hori hartu aurretik, jendaurrean erakusgai jarri eta hiru alegazio aurkeztu zituzten beste hainbeste herritarrek. Bat onartu, bestea baztertu eta hirugarrena partzialki babestu zuen udalbatzak. Baiezkoa eman zitzaion herritar batek erroldatzeari lotuta egindako eskaerari; Donostiako lur eremuan bizi diren zubietarrek usurbildarrek in alderatuta, etxebizitzetako bat eskuratzeko aukera berdina izateari hain zuzen. Partzialki aho batez onartu zen bestalde, pertsonako15 metro karratu erabilgarritik beherako ratioa izateko aukera eskaera orrietatik kentzea.



HIRU ALEGAZIO AURKEZTU ZIREN ETA HORIETAKO BAT ONARTUA IZAN ZEN.

Palestinako herriari elkartasuna, Aralarrek aurkeztutako ekimen baten bitartez

Israelgo gobernuak Palestinaren kontra burutzen ari den erasoaldiaren aurka adierazpena aurkeztu zuen Usurbilgo Aralarrek azken osoko ohiko bilkuran. Bonbardaketak Nazioarteko Zuzenbideetik kanpo kokatzen direla aipatzen zuten. Palestinako herriari elkartasuna adierazi

zieten eta Israeli bonbardaketak eten eta nazioarteko legedia betetzea galdegin zuten. Baita bertako mugak zabaltzea ere, giza laguntza bertara helarazteko.

Udal gobernu taldeak bat egin zuen Aralarrek aurkeztutako adierazpenarekin. Salagarri eta ikaragarritzat jo zituen azken

asteotako gertakariak. Era berean, Israelek bere mugetatik kanpo zer nolako boterea duen azpimarratu zuten; horren erakusgarri, gogorarazi zuten, Israelek burututako erasoaldiaren aurrean, hainbat herrialdek erakutsitako isiltasun eta konplizitatea.

KALITATERIKO EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

teilatua eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aristitxoko 8. beheak · 943 363 348 · 809 888 021

“Harategietan euskaraz” kanpainak harrera ederra

1.490 txartel jaso ziren Buruntzaldeko udaletako euskaraz batzordeek harategietan antolatutako lehiaketaren barruan. Pasa den abenduaren 19an sarien irabazleak berri eman zen udaletxean.

Egitasmoarekin bat egin zuen harategi bakoitzeko bi bezerok 50 euroko erosketa-bonoa jaso dute.

Imanol Txapartegi. Sarituak: Pakita Orbegozo, Beatriz Ubera Manterola.

Euxebio Txapartegi. Sarituak: Mari Kruz Agirre, Maria Jesus Urdangarin.

Esnaola. Sarituak: Gregori Sarasola, Josefina Atxega Beloki.

Otar Goxo. Sarituak: Milagros Lizaso Azkonobieta, Jorge Beorlegi.

Alkorta. Sarituak: Edurne Aizpuru, Edurne Eskudero Seguro.

Arruti. Sarituak: Eva Fernandez, Marije Furundarena.

DIA. Sarituak: Txaro Irasuegi, Maria Nieves Caballero.



ABENDUAREN 19AN EGIN ZEN SARIEN ZOZKETA UDALETXEAN.

Udal barruko euskararen erabilera plana onartu da

Azken ohiko osoko bilkuran datozen lau urteotarako, udaletxean euskaraz erabiltzea bultzatzeko plan-gintzari baiezkoa eman zion udal ordezkarien gehiengoak. Herriko erakunde nagusiak abian jarriko duen mota bereko laugarren egitasmoa da honakoa.

Euskaraz administrazioko eta gizarte harremanetako hizkuntza bihurtzea. Erakunde barruko langileen artean, baita herritarrekin izan beharreko hartu emantetan ere. Hori guztia bermatu nahi du Udalak, abenduaren 30ean burututako ohiko osoko bilkuran aurkeztu eta bozkatu zen datozen lau urteotarako euskararen erabilera plan berriarekin.

Alde bozkatu zuten gobernu taldeak, Aralarrek eta EAK. PSE-EEko zinegotziak abstentziora jo zuten. Euskaraz planaren aldeko jarrera agertu arren, egitasmoa euskaraz soilik aurkeztu eta eztabaidatu dela aipatu zuen Amaia Goyaranek.

Udaletxeko lan hizkuntza

Herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du euskaraz. Hala dio euskararen erabilera plan berriak. Lehentasunez administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan ziurtatu behar du euskararen erabilera. Baita herritarrek beste administrazio publiko edota erakunde ofizialengandik jaso ditzakeen zerbitzuen kasuan ere. Udalak herritarrei begira euskaraz bultzatzearen alde lan egingo du. Baita erakun-

de barruan ere, langileen etengabeko prestakuntza bultzatuz.

Udal zerbitzu mailan euskararen presentzia zehazteko irizpideak finkatzen ditu euskararen erabilera planak, hartu eman mota desberdinetan. Ahozkoen kasuan, telefono bidezko komunikazioetan lehen hitzak beti euskaraz egitea edota udal ekitaldi publiko zein prentsaurreko saioetan adierazpenak hizkuntza berean burutzea.

UDAL BAIMENAK

“Hirigintza alorrekoak direnean ere, ageriko hizkuntza erabilera euskararen aldekoa izatea bultzatuko da”

Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira planean aipatzen denez. Udalak antolatutako hitzaldien batean hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile bat izatea bermatu nahi da.

Idatzizko harremanetan, herritarren esku jarri beharreko agiriak eta etxera bidalitakoak euskaraz egotea ziurtatu nahi da. Hego Euskal Herriko gainerako administrazioetatik jasotako dokumentazioa gaztelania hutsez badago igorleari itzuliko zaio adierazpen administratibo guztiak euskaraz jaso nahi direla jakinarazteko. Bestalde, zerbitzu enprekin hitzartutako kontratuak edota agiritan, euskaraz erabiltzeko ahalegina biltzen du plangintza berriak. Udal hornitzaileekin horniketa eskatzeko baldintzak adostean

euskararen erabilera zehaztuko da.

Udaletxe barruko langileen artean ere beste hainbeste. Haien arteko harremanetarako hizkuntza nagusia euskaraz izatea bermatu nahi da. Telefono bidezko lehen hitzetan, lan bileretan, edota udal langileen arteko elkarrizketetan, batzaraldietan. Baita lanpostuei esleitutako tresnetan eta erredaktatutako memoria, azterketa, txosten eta zirriborroetan.

Irudia eta argitalpenak

Idazkiak, agiriak, iragarpen ofizialak... guztia euskaraz. Euskaraz Udalen sortze hizkuntza izatea nahi da, beti ere hizkuntza kalitateari erreparatuta; argitasuna, ulergarritasuna, eta zein hartzailei zuzentzen zaion kontuan hartuta.

Herrian antola litezkeen ekitaldietan, udal langileek euskaraz erabiltzeko konpromisoa hartzen da datozen lau urteotarako onartu den planaren barruan. Jaietan adibidez, posturen bat jarri nahi duenak prezio, errotulu eta girotzeko musika euskalduna izatea. Baimenak hirigintza alorrekoak direnean ere, ageriko hizkuntza erabilera euskararen aldekoa izatea bultzatuko da.

Diru laguntzak

Ekintza eta haren publikizitatea euskaraz egitea bermatzea eta tramitazio prozesua euskaraz. Horiek dira kultur, kirol edota aisialdi arloko diru-laguntzak eskatzekoan euskarari dagokionean onartu berri den planean betetzea aipatzen diren baldintzak. Gizarte Zerbitzuen alorreko diru-laguntzen esleipenak salbuetsita geratzen dira.

Euskal kantu ikastaroa, abesteko ohitura sustraitu nahi duen ekimena

Urtarrilaren 13an asteartea lehen bilera egingo da Udarregin

Ohitura historikoa izan dena berreskuratzea. Asmo horrekin osatu da Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, euskal musika taldeengana gerturatu eta haien lana kalez kale plazaratu nahi duen bilgunea. Beste herrietan ugaritzen ari den kantu kalejiren dinamika sortzeko asmoa dago Usurbilen. Lehen urratsa eman dute dagoeneko; urtarrilaren 13tik aurrera euskal kantu ikastaroa antolatzea.

NOAUA! Taldea nolatan osatu duzue?

Mikel Usabiaga. Herritar batzuk kantu afaritarra joanez gabiltza eta egia esan, Usurbilen lehendik kantatzeko ohitura handia genuen. Mahai baten inguruan bildu eta ondoren, kantatzen bukatzen genuen. Ohitura galdu dela ikusten dugu. Kantu afaritarra joaten garenok halako osasun terapia egiten dugu. Zoragarria da eta askotan biltzen gara Ipar Euskal Herrikoekin. Beti erronka bota izan diogu elkarri. Halakorik Usurbilen antolatu beharra dagoela esan izan dugu. Baina beti uzten. Hondarribian, Zarautzen, Hernanin... hil bakoitzaren bukaeran ateratzen dira kalera kantatzera.

MIKEL USABIAGA

“16 urtetik gorako edonork izena eman dezake; zalantzarik gabe, ondo pasatuko dugu”

N. Ohitura hedatzen ari da gainera?

M. U. Bai. Orain gutxi Urruñan egon gara. Ehun bat pertsona bildu ginen. Izugarriko giro ona izan genuen, liburuxka batekin gutxienez bi ordutik gora kantatzen aritu ginen, afalostean. Izugarriko arrakasta duen ekintza bat da, eta asko gozatzen dugu. Gure helburuetako bat, Usurbil Kantuz herrian

antolatzea litzateke. Talde bat bildu gara. Ikastolako irakasle Susi Elosegik bere burua laguntzeko eskaini zuen. Bide onetik zihoan guztia eta ikastaroa antolatzea pentsatu dugu. Helburua, kantatzeko ohitura berreskuratu, euskal kantuak bultzatu eta gure abeslari taldeak gertuago sentitzea da. Egiten duten lana geureganatzea. Guk ere haien kantzak abestu eta Usurbilen herri dinamika bat sortzea litzateke gure asmoa.

N. Ekimen horretako lehen pausoa beraz, ikastaroa izango da?

M. U. Lehenbizi ikasten hasi beharko dugu, edo lotsa galtzen. Honek ez luke izan nahi musika eskolako abesbatza koral ofizial bat, kantatzen gozatzeko herritarren bilgunea baizik. Honen ondorioz, beste herrietan abian den dinamika bat etor liteke. Noizbehinka, herri-
tik osteratxo bat kantatuz egitea. Herrian kantu afariak antolatzea Ipar Euskal Herrikoekin harremanetan jarritz, elkar ezagutuz. Ia kantuz elkartzen garen.

N. Kanturako gogoia, baldintza bakarra.

M. U. Baldintza bakarra euskal kantuak kantatzeko gogoia izatea da, gutxienez astean behin ordubetexu bat. Denok dakizkigun kantuekin hasiko gara. Eta gero ikusiko dugu zer egin, zer dinamika sortu. Agian, Santa Ageda edo eguberrietan, interesgarria litzateke gure ekintza plazaratzea.

N. Euskal kantu orok izango du bere lekua?

M. U. Badakigu 16-17 urteko talde bat datorrela. Pentsatzen dut horiek orain gutxi kantuak nahiko dituztela abestu. Aspaldikoak garenok aldiz, Laboa edo Lertxundirenak. Guk lehenbiziko bileran liburuxka bat egiteko asmoa planteatuko dugu, partaide bakoitzak aukeratuko lituzkeen hiruzpalau kantekin. Hartara bakoitzak, norbere eta besteen kantuak aurkituko ditu bertan. Liburuxka zabala, oso irekia da.



**BESTE HERRI BATZUETAN
JADA OSATU DIRA EUSKAL
KANTUEN INGURUKO TALDEAK.**

N. Euskal kantuak bizirik mantentzeko, transmisio lana beharrezkoa da beraz?

M. U. Euskal taldeek egindako lana guk ere plazaratzea. Asko poztuko ginatke, herriko tabernariak edota publikoaren aurrean musika jartzen duten guztiak euskal kantuak gehiago jarriak balituzte, on egingo lukete. Giro hau bultzatuko lukete.

Lehen hitzordua,

**datorren asteartean Udarregin
Eguna: urtarrilak 13, asteartea.**

Tokia: Udarregi ikastolako musika gela.

Ordua: 19:30-20:30.

Nori zuzendua: 16 urtetik gorako herritarrei.

Izen ematea: Udarregi ikastolan, Oiarde Kiroldegian edota 650 422 607 telefono zenbakian.

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Babeslea: Udala.

Usurbil.net, udalerriko ataria martxan

Beste udalerrri askok bezala, jada Usurbilek bere ataria du sareen sarean. Udalaren eta herritarren arteko harremana indartzera dator. Informazioa eskaini eta parte hartzea bultzatu nahi da. Udal erabakiak, hondakinen atez ateko bilketa sistema berria, Andatza udal aldizkaria, albiste eta agenda eguneratuak, zerbitzu eta telefono zenbakien gidak... Hori guztia eta gehiago aurki daiteke, www.usurbil.net web orrialdean.

Zegoen hutsunea bete da. Martxan dago, usurbil.net atari berritua, atal desberdinekin. Informazioa da web orriaren oinarri garrantzitsuetako bat. Herritarrei zuzendutako tresna izateko bokazioz prestatu du Udalak atari berritua. Hala, Udalaren lehentasunetako bat tresna honekin herritarren parte hartzea bultzatzea da.

“Gure asmoa zerbitzua hobetu eta herritarrekin harremana estutzea da”, adierazi zuen alkate Xabier Mikel Errekondok abenduaren 18an Sutegin burutu zuten aurkezpen saioan. Web orrialdeak duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten. Alkatearen esane-

tan, “garrantzi itzela du udal jarduerarako eta Udalak herria ulertzeko duen filosofiaren barruan”. Edozein unetan, edonondik informazio gehiago, azkarago eta modu zabalagoan jasotzeko aukera eskaintzen du web orriak, eragileek gaineratu zutenaz.

Koloreekin jolastu dute, web orri berrituak dituen atal desberdinak bereizteko. Hiru sail nagusi aipatu behar dira. “Udaletxea” izenekoan, udal informazioa ageri da. Udal erabakiak, aktak, lan eskaintzak... esekiko dituzte.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Gure asmoa zerbitzua hobetu eta herritarrekin harremana estutzea da”

“Usurbil gaur” izenekoan, informazio praktikoa aurki daiteke. Herriko zerbitzu eta telefono gida besteak beste. Azkenik, “Usurbil ezagutzen” izeneko atala legoke. Kanpotik Usurbil ezagutzera etorri edota nor bere herria hobeto ezagutu nahi duenarentzat, behar beste informaziorekin.

Orrialde dinamikoa izango da usurbil.net.



SUTEGIN EGIN ZEN USURBIL.NET WEBGUNEAREN AURKEZPENA.

bil.net. Hala, agenda, albiste eguneratuak eta loturak esekiko dituzte.

Atez ateko hondakin bilketa sistema berriari buruzko xehetasunak eskura daitezke. Andatza udal aldizkaria deskargatu, baita Buruntzaldea eta UEMAko orrietara jo ere. Denborarekin orriko edukiak aldatzen eta eguneratzen direla ikusiko dugu. Aurkezpen saioan Errekondok gogorazi zuenez, “hobetzen jarraitu behar”.

Udaleko e-postak egokitu egin dira

Web orri berria martxan jartzearekin batera, aldatu egin dira Udaleko helbide elektronikoen domeinuak. Hemendik aurrera, usurbil.net helbidearekin amaituko dira udal e-postak.

NOAUA!ko saskiek badute jaberik



Urtero bezala, eguberrien atarian, NOAUA!ko bazkideen artean bi saski eder zozketatu genituen. Saskian zuten, nola ez, Patxi Azpizok argitaratu



duen liburua. Koro Martija (erdian) eta Andoni Larreta (eskubitara) izan dira irabazleak. Aldizkarian publizitatea jartzen dutenen artean ere, saski bat bana-



tu ohi dugu eta aurtien Aialde Berri sagardotegiak eraman du. Zorionak denei eta gainontzekoei, datorren urtean gehiago!

Pedro Ibarra, herritar plataformaren bozeramalea

“Inposatu nahi zaigun atez ateko sistemari erantzun nahi diogu soilik”

A benduaren 18an prentsurrekoa eskaini zuen Usurbilgo Herritar Plataformak (horren berri noaua.com-en eman genuen). Aurreko astean, plataformako bozeramale den Pedro Ibarra elkarrizketatzeko aukera izan genuen. Atez atekoa inposaketatzat jotzen du eta errauste-plantaz galdetzerakoan, erantzukizuna udalaz gaindiko instituzioen baitan uzten du: “gai horrek gainezka egiten digu, gai hori Gipuzkoako mankomunitateen baitan dago, eta Foru Aldundiaren baitan, eta ez soilik Usurbilgo udaletxearen edo herritarren baitan”.

NOAUA! Publiko egin aurretik, manifestua udaletxean aurkeztu zenuen. Hondakinen gaiarekin lotutako erabaki denak onartu gabe uzteko eskaera egiten zenuten, bereziki, “ordenantza berriaren inguruko erabakia eta udal elkarte anonimo berria osatzeko erabakia”, Udalak zuen manifestuan biltzen dena aintzakotzat hartu arte. Zein izan da Udalaren erantzuna?

Pedro Ibarra, herritar plataformako bozeramalea. Ez dugu inolako erantzun ofizialik jaso. Onartu gabe uzteko eskatzen genituen puntu denak onartu ziren abenduaren 10eko udalbatza plenoan. Abenduaren 18an Sutegin egin genuen aurkezpen publikoan, ordea, Imanol Azpiroz zinegotziaren presentzia izan genuen, eta udalaren jarrera luze eta zabal azaltzeko aukera izan zuen.

SINADURA BILKETA

Herri kontsulta egiteko, sinadura bilketa jarriko dute martxan laster

N. Eta herritarren artean, zein izan da jaso duzuen erantzuna?

P. I. Herritar askok irakurri dutela uste dugu, eta orain arte hondakinak bereiztu



PRENTSAN ARGITARA EMAN ZUTEN IDATZIAZ ARITU ZIREN HIZKETAN ABENDUAREN 18AN SUTEGIN EGIN ZUTEN ABERRALDIAN.

eta dagokion edukiontzira atera dituen herritar gehiengoak –gurasoak, jubilatua, pentsiodunak– gaur egungo sistema mantentzearen alde dagoela uste dugu. Hondakin organikoaren bilketa selektiboa egitearen alde daude, baina beti ere kaleko edukiontzi batean, ordutegien trabarik izan gabe; Gipuzkoako herri gehienguan egiten den eta egingo den moduan.

N. Zeintzuk dira aurrerantzean eman go dituzuen urratsak?

P. I. Abenduaren 26an, idatzi bat aurkeztu genuen udaletxean, non ahalik eta azkarren, Usurbilen erroldan izena emanda daudenen zenbatekoa zein den argitzeko eskatuz. Udal erroldaren arabera, 16 urtetik gorakoak zenbat diren jakin nahi dugu. Era horretan, jakingo dugu atez ateko sistemaren inguruko herri kontsulta martxan jartzeko zenbat sinadura behar diren zehazki.

Herri kontsultak oinarri legala du eta udal araudi organikoan jasota dago, 2005eko abuztuaren 4ko GAOn jasoa, 147 zenbakian.

Eguberrien ondoren, sinadura bilketa jarriko dugu martxan. Araudi horren arabera, erroldan diren %10 horretara iritsi

beharko dugu, beraz, seguruenik 400 bat firma beharko ditugu, beti ere 16 urtetik gorakoaren inguruan udalak ematen digun erantzunaren arabera.

Bestetik, udalak atez ateko sistema inposatu nahi badu, gizalegezko eta pasiboa izango den erantzun batean pentsatu beharko dugu, hondakin organikoak biltzeko ontziak ez onartzea, adibidez.

Bestetik, herritarrei zera esan nahi diegu, urtarrilaren 16a bitarte udalbatza plenoan udal elkarte anonimo berriaz hartutako erabakiari alegazioak aurkezteko epea irekita izango dela. Akordio hori udaletxean dago, euskaraz eta gazteleraz, aztertu nahi duen guztien eskura.

N. Kanpotik ikusita, badirudi berandu iritsi dela herri kontsulta bideratzeko egin duzuen proposamena. Auzoz auzoko informazio bileren erronda amaitu berritan, eta atez atekoarekin hasteko hilabete eskas falta denean.

P. I. Udalak eman duen informazioaren eta dokumentazioaren ondorio logikoa izan da eman dugun pausoa. Gainontzeko edukiontziak kendu gabe, organikoa bilduko duen edukiontzi berriarekin ondo egin daiteke hondaki-

nen gaikako bilketa. Erronda aurretik, ezinezkoa zen, atez ateko sistemaren proposamen zehatza ez genuen ezagutzen.

Udalak egin dituen aurreikuspenen harira (otsailaren erdialdean hasi nahi da atez ateko bilketa sistemarekin), iruditzen zaigu oso optimista dela proposamena, beharrezkoa den denborari ez baitio erantzuten aurreikuspen horrek. Behin betiko onartu behar da udalbatza plenoan udal elkarte anonimo berria, 2009ko udal aurrekontuak ere onartu behar dira... Honi guztiari gehitu behar zaio balizko herri kontsulta, eta baita aurkez daitezkeen errekurtsu administratibo eta judizialen azterketa... Uste dugu Udalak atez atekoa ezartzeko jarri duen epea oso labur geratuko dela.

N. Atez atekoa inposizioa dela diozue manifestuan. Baina San Markosek argitaratu eman dituen datuak argiak dira: birziklatze tasak ez du %30a gaintzen.

P. I. Inposaketaz dioena gure manifestuak ez dugu guk esan, elkarte anonimo berrian jasota dagoen esaldia da: "Gipuzkoako beste herri batzuekin alderatuz, Usurbilen proposatutako sistema integrala da: herri osoari eta hondakinen frakzio guztiei eragingo die eta hala beharrezko izaera izango du".

Partzuergoak bultzatutako planak (PIGRUP 2002-2016), helburu hau

zehazten du: 2010 urtera arte, % 20 birziklatu; 2020 urtera bitarte, %50 (2000 datuekin alderatuz egindako estimazioak). Horrek suposatuko luke 2010erako, hondakin guztien %36 birziklatzea, eta 2.020rako, %45. Udalak erdietsi nahi duen %80etik urrun.

PEDRO IBARRA

"Udalak ez du esan birziklatuko ez den %20 horrekin zer egingo duen"

Udalak ezarri nahi duen sistemaren aurrean, guk nahiago dugu informazio gehiago zabaldu eta hondakinen tratamenduari buruzko formazioa sustatu, ahalik eta birziklatze maila handiena lor dadin.

N. Atez ateko sistema borondatezkoa izan behar dela diozue. Errauste-plantak ere ez dio herri borondateari erantzuten. Azkenean, eztabaida horretara mugatu da, atez atekoa ala errauste-planta. Nola ikusten duzue Usurbilgo kaxkotik km gutxira jarriko duten errauste planta?

P. I. Guretzat eztabaida ez da hori, atez atekoa aukeratu ala errauste-planta. Guk soilik inposatu nahi zaigun atez ateko

sistemari erantzun nahi diogu. Gainera, oso garestia izango da herriarentzat, inbertsioak 2.154.400 eurokoak izango dira (358 milioi pezeta) eta urteko mantenua ia 383.000 eurokoa izango da, honi urteroko amortizazioak gehitu behar zaizkio.

Sistema berria ez dela beharrezkoa adierazi nahi dugu, organikoak bilduko dituen edukiontzi berriarekin gastuak oso gutxi igoko lirateke.

Horregatik, Zubietako donostiar lurretan ezarriko den errauste plantaren gaiak gainezka egiten digu, gai hori Mankomunitateen baitan dago, eta Foru Aldundiaren baitan, ez soilik Usurbilgo udaletxearen edo herritarren baitan.

N. Zerbait gaineratu nahi zenuke?

P. I. Uste dugu errauste-planta eraikitzearen aurka azaltzea dela udalarentzat oinarritzkoena. Bilketa selektiboa, nahi den sistema erabiltzen dela ere, ez da sekula %80ra iritsiko, ez Usurbilen ezta Gipuzkoa osoan ere. Maiz esateagatik ere, ez da egi bihurtuko %80 hori.

Bestetik, udalak ez du ezer esan birziklatzen ez den balizko %20 horrekin zer egingo duen. Mundu guztiak dakielako birziklatze, konpost, berrerabiltze... guztien ondoren, birziklatu ezin daitekeenarekin bi soluzio baino ez daudela: zaborregia edo errauste-planta.

Herritar askok bat egin dute autokonpostajea egiteko kanpainarekin

Atez ateko bilketa hastearrekin batera autokonpostatzen hasiko dira usurbildar asko. Lehendik ia 100 lagun ari ziren autokonpostatzen herrian, baina dagoeneko beste 120 lagunek eman dute izena. Hala dio www.usurbil.net/atezate atariak: "Horrek esan nahi du, etxean konpostatuko duten lagun hauek zaborraren arazoari aurre egiteko oinarritzko lehen legea beteko dutela, hondakinak gutxitzekoa, alegia. Etxean, jatorrian, konponduko dute arazoa".

Ingurugiro mailako onuraz gain, beste onura batzuk ere baditu jarrera horrek, udalak lagundu nahi baitio autokonpostatzea erabaki duen herritarrari.

1. Konpostagailua doan emango zaie autokonpostajea egin nahi dutenei.

2. Zaborren-tasan %40ko hobaria izango dute autokonpostatzen hasten direnek.

3. Ikastaroa doan izango dute konpostatzen ikasi nahi dutenek.

4. Urtebetez teknikari baten laguntza izango dute.

Urtarrila bukaera arteko epea

Beraz, arazo honi modu natural eta osasuntsu batez heldu nahi dionak eta baratza edota lorategi txikiren bat duenak urtarrilaren amaiera arteko epea du autokonpostatzeko egitasmoan izena emateko. Informazio gehiago Sutegin,



KONPOSTAGAILUA UDALAK EMATEN DU DOAN.

atezate@usurbil.net posta elektronikoan edo doako telefonoan: 900 776 776.

Jokatzen jarraitzea, omenaldirik onena

Eskubaloi festa ederra izan zen abenduaren 27koa. Infantil mailako txapelketan, Euskal Herriko talde ezberdinek hartu zuten parte. Partida askotan, kiroldegia jendez gainezka izan zen. Usurbil KE eskubaloi taldeak ahalegin handia egin zuen eta horri esker festa ahaztezina izan zen. Mirotz Ullate eta Benito Mujika omentzeko egun paregabea.

Zumaiako Pulpo taldea, Nafarroako selekzioa, Zarautz, Loiola eta Kukullaga bizkaitar taldeak bat egin zuten Usurbil KE taldeak egindako gonbitearekin. Asier Salsamendik aditzera eman digunez, "etorri ziren talde denak oso gustura egon zirela esan ziguten. Oso ondo antolatu genuela dena". Baina eguna ez zen ondo hasi.

ASIER SALSAMENDI

"Etorri ziren talde denak oso gustura egon zirela esan digute, oso ondo antolatu genuela dena"

Elurra tarteko, Arabakoak ez zuten etortzerik izan. Partidak bi multzotan zeuden antolatuta eta goitik behera aldatu behar izan zuten txapelketa. Baina inprobisazioan ere fin aritu ziren Usurbil KE eskubaloi taldekoak.

Mirotzen omenezko eguna zen (gaiotasun batek irailaren 9an eraman zuen jokalaria gaztearen oroimenez). Eta bere lagunak eta baita Usurbil KE taldekoek ahalegin berezia egin zuten: jubeniil mailako jokalaria Agerialden egin zen bazkarian aritu ziren zerbitzatzeko. Senior mailako jokalaria, ordea, arbitro lanak egiten.

Benito Mujikaren senideek oroigarri bat jaso zuten

Baina Mirotz ez zen eskubaloi festan omendua izan zen bakarra. Benito Mujikak ere oroigarri bat jaso zuen. Usurbilen eskubaloi taldea osatu zenean, oso lagungarria izan zen Benitoren lana. Bere etxeok plaka bat jaso zuten oroigarri gisa.

Sari banaketan, Benito Mujikaren senideekin batera, Mirotzen amak hartu zuen parte. Baita Lontxo Zubiria zinegotziak Kirol Patronatoaren izenean eta Xabier Mikel Errekondo alkateak Udalaren izenean. Euskadiko Kutxak diruz lagundu zuen eta sari bat ere banatu zuen aurrezki kutxa honek.

Kamiseta bana eman zitzaie jokalaria denei

Irabazleentzat sariak baina jokalaria denentzat kamiseta bana izan zen. Zentzu horretan, antolatzaileek eskerrik eman nahi dizkiete Saizar sagardotegia eta Josu serigrafiakoei, kamisetak



USURBIL KE TALDEKOEK ANTOLATU ZUTEN ESKUBALOI FESTAN, BENITO MUJIKAREN SENIDEEK OROIGARRI BAT JASO ZUTEN.

euren laguntzari esker banatu ahal izan zirelako.

Arkume zozketa ere egin zen eta sariak Sebas Cardenas eta Zumaiako Pulpo taldea izan ziren.

Kiroldegiko kuotaren ordainketa zatika egin ahal izango da 2009an

Oiaro kiroldegian, 2009tik aurrera, erabiltzaileen kuota ordaintzeko aukera ezberdinak egongo dira. Erabilera urte osorako egin behar bada ere ordainketa hila-betero, hiruhilabetero edo orain bezala urtean bitan edo batean ordaindu ahal izango da.

Sari banaketa, iruditan





Bila itzazu kostako herriak

Bigarren mailako ikasleak itsasoaren munduan murgildurik daude erabat. Ongi asko ezagutzen dituzte balearen arrantza, piratak, nabigatzaileak... Gure kostako herri askoren ikur bihurtu da balea. Jarraian duzuen hizkitzopon aurkituko dituzu ezagunenak.



Bermeo



Lekeitio



Mutriku



Hondarribia



Miarritze



Getaria



Usurbildarrak txukun Buruntzaldeko pilota festan

Buruntzaldeko pilota jaialdiak Buruntzaldeko frontoiak pelotariz bete zituen abenduaren 28an. Urte osoan egindako lana kalera atera eta egun ederren pasatzeko aukera izan zuten, tartean, usurbildar gazteek.

Arratsaldean, pilota jaialdi ikusgarria izan zen kiroldegian. Frontoia jen-

dez beteta zela, profesional mailako pilota partidak jokatu ziren. Aurreneko partidaren, Aratz Mendizabal eta Argotek 22 eta 10 irabazi zuten Saralegi eta Oteizaren kontra. Bigarren partidaren, Oier Mendizabal eta Aimar Olaizolak irabazi zuten, 22 eta 16, Berasaluze VIII eta Belokiren kontra. Partida luzea izan zen, borrokatua eta landua.



USURBILDARREK HIRU PARTIDAK IRABAZI ZITUZTEN.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea. 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Kantu bete eguberri izan dira

Ohiturari jarraituz, kantuan pasa ditugu eguberriak. Iragarri bezala, gure artean izan zen Olentzero eta baita errege magoak ere. Oparitan ekarritakoarekin gozatzeko urte osoa dugu aurretik.

Abenduaren 19an, eguberrietako oporrak kantuz hasi zituzten Udarregi ikastola eta Haur Eskolako ikasleek. Baita Zubieta zein Aginagako eskola txikietan ere. Abenduaren 24an, gaztetxo asko aritu ziren gabonetako kantuak abesten. Bezperan, kalejira polita egin zuten Zumarte eskolako ikasleek. Giro ona eta umorea bidelagun izan daitezela 2009 honetan, beharko ditugu.



ABENDUAREN 23AN, HURBILAGOREN EKIMENEZ, OLENTZERO ETA MARIDOMINGI DENDAZ DENDA IBILI ZIREN, JOSTAILUAK BILTZEN.



ABENDUAREN 23AN, ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK KANTUAN IBILI ZIREN KALEZ KALE. ONDO IRAKATSIK DAUDELA ESAN DAITEKE, EDERKI ARITU BAITZIREN.



ABENDUAREN 24AN, TALDE POLITA OSATU ZEN SANTUENEAN. OLENTZEROREN BISITA ALAITU ZUTEN IRUDIAN DIREN HERRITARREK.



ZIORTZA AISIALDI TALDEKOEI ESKER IRITSI ZIREN GURE ARTERA HIRU ERREGE MAGOAK. SAN ESTEBANDIK BARRENA IRITSI ZIREN.

Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia	
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30	
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00	
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30	
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00	
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30	
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10	
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30	
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10	
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30	
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30	
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30	
13.40	>>	14.05	14.15	14.25		13.30	13.40	13.45	14.10	
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30	
14.40	>>	15.05	15.15	15.25		14.30	14.40	14.45	15.10	
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30	
15.40	>>	16.05	16.15	16.25		15.30	15.40	15.45	16.10	
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30	
17.40	>>	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10	
18.10	18.30	18.35	18.45		16.45	16.55	17.05	>>	17.30	
18.40	>>	19.05	19.15	19.25		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30	
19.40	>>	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.10	
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	>>	20.30	
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30	
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00	

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

• Marka LANEGUNETAN berrak (M) Urdunberrak 09/06/22-09/09/14 (C) Nazario berrak

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.17	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.17	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	* 14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
* 15.38	15.45	15.54	16.09	* 15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
* 16.38	16.45	16.54	17.09	* 16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
* 17.38	17.45	17.54	18.09	* 17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
* 18.38	18.45	18.54	19.09	* 18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
* 19.38	19.45	19.54	20.09	* 19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.17	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.40	22.46	22.55	23.10				

0000 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 0000 Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN
 * Asteleketan eta Udako (09/06/22-09/09/14) larunbat, igande eta Jaiegunetan
 Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Urtarrilak 8, osteguna
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Urtarrilak 9, ostirala
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urtarrilak 10, larunbata
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Urtarrilak 11, igandea
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urtarrilak 12, astelehena
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urtarrilak 13, asteartea
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urtarrilak 14, asteazkena
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urtarrilak 15, osteguna
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Urtarrilak 16, ostirala
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Urtarrilak 17, larunbata
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Urtarrilak 18, igandea
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
 Castilla Farmazia (22:00-09:00),
 Urbietza kalea, 7 Hernani
 Telefono zenbakia: 943 552 941
 *Usurbilen, soilik eguerdira arte

Mahaspildegia nagusi Elkarteen Mus Txapelketan

Herriko Elkarteen XI. Mus Txapelketa Eguzki elkartean jokatzen zen. Kanporaketa sistema erabili zuten eta lau elkarte onenak jokatu zituzten finalerdiak. Azkenean, Mahaspildegiko Koldo Lertxundi eta J. M. Lertxundi izan ziren garaipena eskuratu zutenak. Bigarren izan ziren Eguzki elkarteko Gabriel eta Lozano, Peña Pagolako Angel eta Rufino hirugarren eta Aginaga elkarteko Abbat eta Alberto laugarren.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete hauei guztxi: Saltxipi, Atxega, Txitxardin Beltz, Olarrondo, Aginaga, Aialde Berri, Alamandegia, Barazar, Antxeta, Araeta, Ardi Beltz, Bordatxo, Iruin, Maykar, Patri, Saizar, Sekaño, Urdaira eta Usurbilgo Udalar.

Tren Orduetgia

Agenda !!

Urtarrilak 10 larunbata
"Garraxi Ixilak" antzerkia Sutegin.
20:00etan. Sarrera alde aurretik, 3 euro
kiroldegian salgai. Egunean bertan, 5.

Urtarrilak 12 astelehena
Odol-ematea Osasun Etxean.
19:00etatik 21:00etara.

Urtarrilak 13 asteartea
Masaje mukolitiikoen tailerra,
16:30ean Haur Eskolan, teoriako saioa.
0-3 urteko haurrei eta beraien gurasoei
zuzendua. Izen-ematea: 943 374 061.

Urtarrilak 16 ostirala
"Querida Bamako" pelikula,
22:00etan Sutegin. Sarrera doan.

Urtarrilak 18 igandea
Rh+ Sevillako banpiroa, filma euska-
raz. 17:00etan Sutegin. 8-14 urteko hau-
rrei zuzendua. Sarrera, egunean bertan, 2
euro.

Urtarrilak 20 asteartea
Masaje mukolitiikoen tailerra, 16:30-
17:30ean, praktika 0-1 urteko haurrak.
17:30-18:30era, praktika 1-2 eta 2-3
urteko haurrak.

Dantza ikastaroa antolatu dute Kalezarren

Belmonte auzo elkarteak dantza ikastaroa antolatu nahi du. 10 urtetik gorako-
en artean animatzen diren herritar-
rrek, fandangoa eta arin-arina ikaste-
ko aukera aparta dute. Urtarrilaren
16an bilera bat egingo da Harane
futbol zelai ondoko lokalean.
Ikastaroaren berri eman eta ordute-
giak zehaztu nahi dira interesatuta
dauden guztien artean.

Belmonte partean dantza egiteko
gogoz dabilta hainbat auzotar.
Afizio hori gainontzekoekin konpar-
titu nahi dute. Eta hortik ikastaroa
antolatzeke asmoa.

Bilera datorren astean egingo da,
urtarrilaren 16an ostirala, arratsalde-
ko 18:30ean Harane futbol zelai
ondoko parkingaren aldamenean
dagoen lokalean. Ezin duenak azaldu



URTARRILAREN 16AN BILERA BAT
ANTOLATU DA.

edo informazio gehiago bildu nahi
duenak, telefono zenbaki hau du
eskura: 676 45 31 75.

Arratsalde partean, umeak ikasto-
lan dauden garaia egokia izan daite-
ke ikastaroa aurrera eramateko,
baina antolatzaileek nahiago dute
izena ematen duten guztien iritzia
jaso eta horren arabera ordutegiak
zehaztu.

Usurbil KE eskubaloi taldeak abenduan banatutako sariak



TALDEKO BAZKIDEEN ARTEAN
BI SASKI ZOZKETATU ZIREN.
ARANTXA URKIAK IRABAZI
ZUEN SASKIETAKO BAT.



USURBIL KE TALDEKO BAZKI-
DEEN ARTEAN EGINDAKO ZOZ-
KETAN JOXE SARASOLA ERE
IZAN ZEN SARITUA.



ABENDUKO ERRIFA ZOZKE-
TAN, ORDEA, IÑAKI ZABALETAK
ERAMAN ZUEN ANTXTETAN BI
LAGUNENTZAT AFARIA.

Heapaindegia eta Solarium-a
Loli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

 **Kima** 
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

ETXEBIZITZA

- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunjo; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Kaxkoan pisu bat alokairuan, garajea eta trasteroa. Abala eskatuko da. 18:00-21:00. 649 261 704.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du, bizilagunentzako aparkalekua. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso

merke. 657 700 408.

- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almazen moduan ibiltzeko sarre-eragokia. 943373481 / 943 37 34 14.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabilta. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajejan egondakoa. 666988050.
- Galtzaragainan 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Kamarera behar da Xarma tabernan, astean bi egunetan lana egiteko. 943368771.
- Antxeta jatetxean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, 646717676
- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu:

661702708 / 943575788

- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Haurren geletako hormetan mota eta tamaina guztietako marrakzi eta irudiak margotzen dira. Tamainaren arabera kostua. Azkar eta modu onean. Enkargu berezietarako (tamainu handiak edo irudi asko) prezio bereziak. 607 42 44 97
- Talde bat osatzeko gitarrak eta baxujole bila gabilta: 620 431108 / 666 062312
- Azaroaren 18an giltzak galdu nituen Eguzkitaldean. 635 701 374.
- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasozten ari direnak beraien moxal jaioberriein eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aukliak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Zorionak Alex!
Urtarrilaren 12an
4 urte egingo
dituzu, lau
muxu potolo!



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalegor
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Cocktail bereziak

GOSARIAK, PINTXOAK...

**EGUNEKO MENUAK (ASTE BURUETAN ERE),
BOKATAK, PLATER BEREZIAK...**

ASTE BURUETAN ERE: KOPAK, COCKTAIL...

IREKI DUGU IADANIK!

943 36 91 35 BORDABERRI 5, Usurbil

astelehetik larunbatera: goizeko 07:00tan irekitzen dugu!

igandetan: goizeko 08:00tan



TXOTX!!



Txotxetik sagardoak jarraitu izateko!

Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilora
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingandean
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hemani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel.: 943 362 228
www.sidrassaizar.com



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

iruvin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com



Aginaga
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com